

>> **Hondakinen Kudeaketa**

Hondakinen dokumentazioa

AZALPEN LABURRA

HONDAKINEN EKOIZLEAK garen aldetik [833/1998 Errege Dekretuaren 13. art.](#) eta [952/1997 Errege Dekretuaren](#) arabera, ondoren azaltzen ditugun dokumentuak betetzera behartuta gaude.

Dokumentua	Arduraduna
1. Onarpen eskabidea	Administrazioa
2. Onarpen Dokumentua	Baimendutako Kudeatzailea (Enpresa)
3. Kontrol eta Jarraipen-Dokumentua	Hondakin bidaltzailea
4. Lekualdatzearen Aurretiko Jakinarazpena	Hondakin bidaltzailea

1. Onarpen eskabidea

Hondakin mota berri bat sortzen den bakoitzean jakinarazi egin behar da. Hondakin berri baten onarpen eskabideak honako [formato](#) hau dauka.

2. Onarpen Dokumentua

Hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileek baino ez dituzte bilduko. Kudeatzaile hauek kontratatuak izan diren hondakin arriskutsu bakoitzerako [onarpen dokumentu](#) bat luzatuko dute.

Erabat debekatuta dago hondakin arriskutsuak baimendu gabeko kudeatzaileei ematea. Hondakinen bilketarako baimendutako eta kontratatutako kudeatzaileak zeintzuk diren kontsultatzeko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzura jo: 945 01 84 11 edo hemen ikusi : [EAEko kudeatzaile baimenduak](#)

3. Kontrol eta Jarraipen-Dokumentua

Kontrol eta Jarraipen-Dokumentuak [zazpi kopia](#) ditu. Lehenengo hirurak hondakin ekoizleak gordeko ditu eta azken laurak garraiolariak.

4. Lekualdatzearen Aurretiko Jakinarazpena

Gai hau dagokion Erakundeari igorriko zaio.

HITZARMENA:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, IHOBE Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa S.A.rekin batera, EAEko Unibertsitatez kanpoko Herri Ikastetxeetan sortutako Hondakin Arriskutsuen kudeaketa, tratamendu eta bilketarekin lotutako jardueren garapena abian jarri dute.

Prestakuntza eta hondakinak biltzeaz gain, **Hondakin hauen kudeaketarako Ikastetxeei eskaintzen zaien laguntza modu honetan gauzatzen da.**